



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2024/11/28an EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 28/11/2024.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Iratzi Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Puri Regidor Varela
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2024ko azaroaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 28 de noviembre de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAAE6ZXM.rYnM>

**2024/11/28
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria**



1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2024/10/24 eta 2024/10/31.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2024ko azaroaren 18ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

3.- DEBAGOIENAN TRANTSIZIO ENERGETIKOARI BURUZKO DELIBERAZIO-PROZESU BAT BURUTZEKO DIRULAGUNTZA EMATEA ETA HITZARMENA FORMALIZATZEA GIZABIDEA FUNDazioAREKIN. AGINTE ORGANORAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusi da, eta honako hauek hartu dira kontuan:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. Artikuluak jasotzen du udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundi dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege-agindu hori gauzatzeko moduetako bat da gizarte-onura dakarten jarduerak egiten laguntzea erakundeei.
- Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 22.2a) artikuluak esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jasota bezala.
- Alde horretatik, ekitaldi honetarako udal-aurrekontuak 5.646,30 euroko dirulaguntza individualizatua aurreikusten du FUNDACION GIZABIDEA erakundearen alde, Debagoienan trantsizio energetikoari buruzko deliberazio-prozesu bat gauzatzeko.

Eman beharreko dirulaguntza arautzen duen hitzarmenaren klausulak ikusita, eta egindako proposamenarekin bat etorri, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzako Udalaren eta FUNDACION GIZABIDEA erakundearen arteko lankidetza hitzarmena onartzea Debagoienan trantsizio energetikoari buruzko deliberazio prozesua gauzatzeko. Hitzarmen horren klausulak erabaki honekin batera doaz ERANSKIN gisa.

BIGARRENA.- FUNDACION GIZABIDEA erakundeari 9.410,51 euroko dirulaguntza ematea, lehenengo puntuaren aipatutako deliberazio-prozesua gauzatzeko. Dirulaguntza hori jarraian adierazten diren aurrekontu-ekitaldietan eta epeetan ordainduko da, eta bi alderdiek sinatu beharreko lankidetza-hitzarmenean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera justifikatuko da.

2024ko AURREKONTUAREN KONTURAKO DIRULAGUNTZA: 5.646,30 €

2024/11/28
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria



2026ko AURREKONTUAREN KONTURAKO DIRULAGUNTZA: 3.764,20 €

HIRUGARRENA.- Gastua onartzea, hainbat urtetarako eta honela banatuta urteka:

EKITALDIA	PARTIDA	ZENBATEKOA
2024	0100.481.924.00.01	5.646,30 €
2026	0100.481.924.00.01	3.764,20 €

LAUGARRENA.- Honako zinegotzi hauek izendatzea Udalaren ordezkari, deliberazio-prozesuaren gobernantza-sisteman eratuko den aginte-organoan:

- EH BILDUREn aldetik: titularra, Edorta Zubizarreta Alegría; ordezkoa, Mikel Luengo Gabarain.
- EAJ/PNVren aldetik: titularra, Josu Ezkurdia Santamaría; ordezkoa, Maite Uribe Beristain.

4.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:05ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiatzatzen dut.

ERANSKINA

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen helburua Debagoienan burutuko den trantsizio energetikoaren inguruko deliberazio prozesua burutzeko beharrezko den gobernantza eredu definitu eta arautza izango da. Gobernantza eredu hau deliberazio prozesua burutzeko soilik eratuko da, hitzarmenaren iraungitzearekin iraungita geratuko delarik.

Hitzarmen hau sinatzen duten eragileek Debagoienan trantsizio energetikoari buruzko deliberazio prozesua burutzea erabakitzentz dute. Zentzu horretan, eta aipatutako dilema eta galdera oinarri hartuta, sinatzaileak prozesu deliberatiboaren mandatugile bihurtzeko konpromisoa hartzen dute.

2024/11/28
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria



Hitzarmen honen helburua aldeen arteko harreman, antolaketa eta erabakimen prozesuak arautzea izango da.

Bigarrena.- Araubide juridikoa.

1. Hitzarmen hau Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeari (aurrerantzean, "40/2015 legea") lotutako hitzarmen administratibo bat da, bereziki 47-53 bitarteko artikuluetan (biak barne).
2. Arestian aipatutako 40/2015 Legean, 47.2. artikuluan, aurreikusitako hitzarmen moten artean, honakoa herri administrazioen eta Zuzenbide Pribatuko beste subjektu batzuen artean sinatutako hitzarmen bat da, eta hura egikarituz ez da berau sinatzen duten Zuzenbide Pribatuko subjektuen alde eskumen administratiborik lagatzen.
3. Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko hainbat xedapenei jarraiki, Hitzarmen hau sinatzen duten erakunde publikoek hemen jasotako gaiari loturiko eskumendun erakundeak dira, eta beraz ahal menduta daude hitzarmen hau sinatzera.
4. Azkenik, hitzarmen hau aipatutako 2/2016 Legearen 75. artikuluak deliberazio prozesuei buruz dioenari lotuta egongo da.

Hirugarrena.- Prozesu deliberatiboaren helburua

Debagoinen burutuko den trantsizio energetikoaren inguruko prozesu deliberatiboak honako helburuak izango ditu:

1. Energiaren alorrean **helburu amankomunak ezartzea kontsentsu zabalen** bitartez, eta egiteko modu berri bat abiatzea.
2. Debagoinako eskualdean **herritar eta eragileak ahalduntzea**, energiaren aferan beren **ardurak hartuz**.

Laugarren.- Prozesu deliberatiboaren izaera

Prozesu deliberatiboaren izaera lankidetza publiko-pribatu-komunitarioetik eratorritakoa izango da. Modu honetan dagoeneko Debagoinen gertatzen den lankidetzazko ibilbide eta tradizioari erantzun nahi zaio.

Prozesu deliberatiboaren bultzatzaileak hitzarmen hau sinatzen duten izaera ezberdineko erakundeak izango dira. Ondorioz, hitzarmen honen sinatzaileak izango dira bai dilema eta galdera proposatuko dutenak, eta baita prozesu honetatik erator daitezkeen gomendioei erantzuna emango dietenak ere.

Bosgarrena.- Aldeek prozesuarekiko hartzen dituzten konpromisoak

Hitzarmen hau sinatzen duten aldeek prozesuarekiko hartzen dituzten konpromisoak honakoak izango dira:

- Prozesua hasi eta bultzatzeko konpromisoa.

2024/11/28
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria



- Prozesuan ateratzen denari bide emateko konpromisoa. Bide emateak ez du bere horretan burutzea esan nahi, baizik eta azertua eta bideratua izan dadila, eta erantzun bat emana.
- Prozesua dagozkion bermeak beteta garatu dadin adostutako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko eta dagozkion mekanismoak martxan jartzeko konpromisoa.
- Entzute sakonean eta deliberazioan formazioa jasotzeko konpromisoa.
- Prozesua evaluatzeko konpromisoa, prozesua gertatzen den bitartean.

Seigarrena.- Antolakuntza ereduak

Deliberazio prozesua garatzeko aldeek adostutako gobernantza ereduak honako guneak izango lituzke:

- i. **Mandatu organoa:** Gune honetan parte hartzen duten eragileak hitzarmen hau sinatzen duten eragileak izango dira. Gune hau izango da prozesu deliberatiboaren gobernantza sistemaren erabakigune nagusia. Prozesuaren inguruan egon daitezkeen erabakiak hartzea gune honi dagokio. Gune honek ematen dio hasiera eta bultzada prozesu deliberatiboari dilema eta galderaren bitartez, eta gune honek ere hartzen du gomendioei erantzun eta jarraipena emateko konpromisoa.

Izaera mixtoa izango du gune honek, alegia, sektore publikoa, pribatua eta komunitarioa ordezkatuko dituen gunea izan beharko du. Konkretniki honakoak izango dira sektore bakoitzeko ordezkariak:

- Sektore publikoa: Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola, Aramaio, Elgeta eta Leintz – Gatzagako udalak.
- Enpresa sektorea: **Enpresare eta Fagor.**
- Sektore komunitarioa: Deba Garaia Debagoienako Landa Garapenerako Elkartea, Goiener, Berener komunitate energetikoa, Ixotzen komunitate energetikoa, Ekiola komunitate energetikoa, Esnargi-K Koop.S komunitate energetikoa eta Tantai Baso Jabe Kooperatiba.

Guztira, mandatu organoak 27 kide izango ditu, honela banatuta:

- Sektore publikoko ordezkariita 18 kidez osatutakoa izango da. Udal guztiak egongo dira ordezkatuak udal ordezkartzaren bitartez, baina eskualdearen aniztasun ideologiko eta politikoa batze aldera, honakoa izango da udal ordezkarien banaketa: EH Bilduk 8 udal ordezkari izango ditu; EAJk 6 udal ordezkari; PSE-EEk 2 udal ordezkari; Elkarrekin Podemosek udal ordezkari 1; eta Leintz-Gatzagako udalak ordezkari 1. Udal bakoitzeko **organo eskudunak** erabakiko du udalaren ordezkarieta zein izango den. Udal alderdi politikoen artean adostutakoari jarraiki, honakoa izango da udal ordezkarietza:

- **Arrasate:** EH Bilduko ordezkari bat, EAJko ordezkari bat, PSE-EEko ordezkari bat eta Elkarrekin Podemoseko ordezkari bat.
- **Bergara:** EH Bilduko ordezkari bat, EAJko ordezkari bat eta PSE-EEko ordezkari bat.
- **Oñati:** EH Bilduko ordezkari bat eta EAJko ordezkari bat.



- **Aretxabaleta:** EHBilduko ordezkari bat eta EAJko ordezkari bat.
- **Eskoriatza:** EHBilduko ordezkari bat eta EAJko ordezkari bat.
- **Antzuola:** EHBilduko ordezkari bat.
- **Aramaio:** EHBilduko ordezkari bat.
- **Elgeta:** EHBilduko ordezkari bat eta EAJko ordezkari bat.
- **Leitz_Gatzaga:** Udal gobernuko ordezkari bat.

- *Gainerako erakunde sinatzaileei dagokionez, erakunde bakoitzak ordezkari bana izango du mandatu organoan.*
- ii. **Jarraipen batzordea:** Mandatu organoak izendatutako gehienez ere 6 kidez osatutako gunea izango da. Gune honen eraketan izaera publiko-pribatu-komunitarioa errespetatuko da. Gune honen funtzioa prozesuaren jarraipenerako dagozkion erabakiak hartu eta proposamenak egitea da.
- iii. **Talde sustatzailea edo bulego teknikoa:** Debagoiena 2030 iraunkortasun sarea bultzatzen duen Gizabidea Fundazioa izango da bulego teknikoaren ardura hartuko duen erakunde, eta bera izango da prozesuari bultzada emateaz arduratuko dena. Talde sustatzaile honen barruan ere bestelako batzordeak aurreikusten dira: metodologia, komunikazio eta edukien batzordeak. Talde honen parte bestelako aholkularitza enpresa, eragile edo udaletako teknikariek ere izan ahalko dute.
- iv. **Ebaluazio eta ikerketa taldea:** Kanpo aholkularitzak eta unibertsitateek osatuko dute lan-taldea da hau. Bere egiteko prozesuaren ebaluaziorako adierazleak zehaztea, ikasketak sortzea eta sistematizatzea eta prozesuaren bermeak errespetatzen direla ziurtatzea izango da.
- v. **Aholku batzordea:** D2030 iraunkortasun sareak gidatuta, prozesu deliberatiboetan esperientzia duten erakundeek osatuko dute batzorde hau. Horien artean egongo dira Arantzazulab, Olaso Dorrea, Parte-hartuz eta Deliberativa erakundeak.

Zazpigarren.- Funtzionamendua

Honakoak dira aipatutako gune nagusienen funtzioak:

1. **Mandatu organoa:**
 - a) Deliberazio prozesuaren dilema eta galdera adostea.
 - b) Prozesuari hasiera eta bultzada ematea, dilema eta galderaren formulazioaren bitarbez.
 - c) Gobernantza sistemaren batzorde edo lan-taldeak eratu edo kentzea.
 - d) Gobernantza sistemaren batzorde eta lan-taldetako kideak hautatzea.
 - e) Jarraipen batzordeko osaera eta kideak hautatzea.
 - f) Bulego teknikoaren osaera adostea.
 - g) Deliberazio prozesuaren diseinua adostea.
 - h) Herritarren batzarreko kideak hautatzeko proposamena onartzearia.
 - i) Herritarren gomendioei erantzuna ematea, horretarako aurrez burututako deliberazioaren bitarbez.



j) Prozesuak behar duen aurrekontuaren inguruko erabakiak hartzea. Erabaki hauetan soilik finantzaketa ardura duten erakundeek hartuko dute parte, beti ere aparteko ekarpenak eskatuko balitu, **eta aho batez onartu beharko dira.**

2. Jarraipen batzordea:

- a) Prozesuak aurrera jarrai dezan beharrezkoak diren erabaki operatiboak hartzea.
- b) Prozesuan zehar beharrezkoak izan daitezkeen erabakien inguruko proposamena egitea mandatu organoari.
- c) Gobernantza sistemaren batzorde edo lan-taldeen eraketa eta kentze proposamena burutzea mandatu organoari.
- d) Gobernantza sistemaren batzorde eta lan-taldetako kideak proposatzea mandatu organoari.
- e) Deliberazio prozesuaren diseinuaren inguruko lanketa burutzea eta mandatu organoari proposamena egitea.
- f) Herritarren batzarreko kideak hautatzeko proposamena mandatu organoari egitea.
- g) Prozesuak behar dituen aurrekontu aldaketak mandatu organoari proposatzea.
- h) Prozesu deliberatiboaren komunikazioaren inguruko erabakiak hartzea.
- i) Hitzarmen honen jarraipena egitea, hitzarmen honetan jasotzen den hogeigarren klausulan jasotakoari jarraiki. Funtzio honetan Gizabidea Fundazioak ere hartuko du parte.

3. Bulego teknikoa:

- a) Prozesuaren ardura tekniko orokorra izango du.
- b) Prozesuak behar dituen proposamen teknikoak proposatuko dizkio jarraipen batzordeari edo mandatu organoari.
- c) Prozesua burutzeko baliabide pertsonalak jarriko ditu Gizabidea Fundazioak, bera izango delarik langile horiekiko arduradun eta erantzule bakarra, eta baita egiten diren kontratuekiko ere.
- d) Prozesua gertatu dadin beharrezkoak diren aholkularitza edo bestelako kontratuak burutzeko funtzioa izango du, beti ere mandatu organoaren edo jarraipen batzordearen aurretiazko adostasunaren bitartez.
- e) Prozesuaren baliabide material eta pertsonalak bere esku egongo dira, eta hauek kudeatzeko ardura izango du.
- f) Prozesuaren kontu orokorrak kudeatzeko betebeharra izango du, jarraipen batzordeari eta mandatu organoari hauek aurkeztuz, eta baita proposatu daitezkeen aldaketak ere.
- g) Komunikazio estrategiaren proposamena landu eta aurkeztuko dio jarraipen batzordeari.
- h) Prozesuaren diseinua garatzeko ardura izango du, horretarako kontratatutako bestelako eragileekin batera. Prozesuaren diseinuaren proposamena jarraipen batzordeari eta mandatu organoari aurkeztu beharko dizkio, hauen adostasun eta oniritzia jasotzea.

Zortzigarrena.- Erabakimena.

Prozesuari dagozkion erabakiak bi eremutan ezberdintzen dira:

1. Gomendioei erantzuna:

2024/11/28
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria



Prozesu deliberatiboaren helburua adostasunak lortzea da eta energia trantsizio gaia ikuspegi polarizatu etatik aldentzea. Horregatik, herritarrekin eta eragileekin burututako prozesu deliberatibotik eratortzen diren gomendioei erantzuteko hartutako erabakiek aldeen % 70eko babesea izan beharko dute. Era berean, ikuspegi eta lurrarde oreka bermatze aldera, erabakiak baliozkoak izan daitezen honako baldintzak izan beharko dituzte:

- Lurrarde oreka bermatzeko, hartutako erabakiak gutxienez Eskoriatza, Antzuola, Aramaio, Elgeta edo Leintz – Gatzagako udal ordezkarien 3/5ek onartu beharko dute.
- Lankidetzazko izaera bermatzeko, hartutako erabakiak gutxienez enpresa sektoreko eta sektore komunitarioko ordezkari banaren oniritzia jaso beharko du.

2. Kudeaketa erabakiak:

Prozesuak behar dituen kudeaketa erabakiei dagokionean, gehiengo osoz hartuko dira erabakiak. Erabaki hauen artean kokatzen dira prozesuak aurrera jarraitzeko behar dituenak, hala nola, beharrezkoak diren kontratuak burutzea, prozesuaren diseinua adostea, herritarren batzarraren osaera adostea, etab. Erabaki horietan ere, ikuspegi eta lurrarde oreka bermatze aldera, honako baldintzak ezartzen dira:

- Lurrarde oreka bermatzeko, hartutako erabakiak gutxienez Eskoriatza, Antzuola, Aramaio, Elgeta edo Leintz – Gatzagako udal ordezkarien 3/5ek onartu beharko dute.
- Lankidetzazko izaera bermatzeko, hartutako erabakiak gutxienez enpresa sektoreko eta sektore komunitarioko ordezkari banaren oniritzia jaso beharko du.

Erabakia baliozkoa izateko gutxieneko quoruma % 50eko izango da.

Jarraipen batzordeko erabakiak ere gehiengo osoz hartuko dira, eta beti ere gutxienez sektore publiko, pribatu eta komunitarioko ordezkari baten aldeko botoa beharko luke.

Bederatzigarrena.- Deliberazio prozesuaren diseinu metodologikoaren marko orokorra.

Diseinu metodologikoaren xehetasunak prozesuan zehar adostuko badira ere, prozesuak honako faseak izan ditzakeela aurreikusten da:

- *Mahai sektorialak: Mahai sektorial hauek prozesuaren dilema eta galdera kontuan hartuz osatutakoak izango dira. Honen helburua, dilemaren ezaugarri ezberdinengi inguruko iritziak jasotzea izango da, horretarako izaera ezberdineko eragileak bilduz.*
- *Herritarren batzarra: Debagoienan ausaz hautatutako herritarrek osatuko dute herritarren batzarra. Bertako kideen kopurua, herri bakoitzak izango dituen kideak, edo kideak aukeratzeko prozedimendua, mandatu organoak erabakiko ditu. Era berean, herritarren batzarren osaera Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bat egina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritakoari atxikiko zaio.*
- *Herritarren ekarpenak: Prozesuan zehar herritarren iritziak modu zabalean jasotzeko mekanismoak ahalbidetuko dira.*
- *Gazteen ekarpenak: Prozesu deliberatiboak gazteen ekarpenak jasotzeko guneak ahalbidetuko ditu.*



- *Mandatu organoaren deliberazioa: Prozesu deliberatiboan jaso diren gomendioei erantzuna emateko mandatugileek burutu beharreko deliberazio fasea izango da hau.*

Hemen jasotzen den diseinu metodologikoaren marko orokorra hasiera bateko marko adostua da. Hala ere, mandatu organoak prozesuan zehar hemen jasotzen dena aldatu ahal izango dute, edo xehetasun handiagoz garatu.

Hamargarrena.- Prozesu deliberatiboaren baliabideak.

Prozesu deliberatiboaren baliabideek jatorri hau izango dute:

- a) Aldeen aurrekontuen kargura jasotzen dituen diruzko ekarpenak.*
- b) Gobernantza sistemako kide ezberdinek espezietan egindako ekarpenak.*
- c) Edozein enpresa edo erakunde publikotik jasotzen diren dirulaguntza, laguntza, babesletza eta dohaintzak.*
- d) Bere jardueren ondorioz eskura daitezkeen diru sarrerak, nahiz bere ondareen ondoriozko errendimenduak.*
- e) Zuzenbidez baliozkoa den beste edozein.*

Hamaikagarrena.- Finantziazioa eta ekarpen arruntak

Prozesu deliberatiboak 384.000 €ko aurrekontua izango duela aurreikusten da. Aurrekontu hau finantziatzeko egingo diren ekarpenak honakoak izango dira:

- Sektore publikoa: Aurrekontuaren %50a. Udal bakoitzak bere 2024. urteko aurrekontu kontsolidatuaren arabera dagokion proportzioan erantzungo dio aipatutako kopuruari.*
- Enpresa sektoreak: Aurrekontuaren % 25a, enpresen artean adostutako moduaren arabera. Ekarpen kopuru honen barruan sartu ahal izango dira hitzarmen honen sinatzaileak ez diren enpresek egiten dituzten ekarpenak.*
- Bestelako diru iturriak: Aurrekontuaren % 25a.*

Eragile bakoitzak bere diru ekarpenak D2030 iraunkortasun sarea bultzatzen duen Gizabidea Fundazioari egingo dizkio. Gizabidea Fundazioak kontuak kudeatzeko ardura beregan hartuko du. Zentzu honetan, Gizabidea Fundazioak prozesua bideratzeko egin beharreko 15.000 € gaineko zerbitzu kontratuetaen konkurrentzia askatasuna, publizitatea eta gardentasun printzipioak gidatuta jardungo du.

Hamabigarrena.- Udalen diru ekarpenak

Udalek Gizabidea Fundazioari egingo dizkioten diru ekarpenak dirulaguntza zuzen izaera izango dute, eta beraz, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrera atxikiko dira. Zentzu horretan, hitzarmen honi proiektuaren memoria eta aurrekontua atxikituko zaizkio.

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza edo ekarpenekin. Hala ere, proiektu edo prozesu honetarako jasotako dirulaguntza edo ekarpenek ezingo dute proiektuaren kostu oso gainditu.



Udalek bideratutako dirulaguntzak bi ordainketetan burutuko dira, 2024 eta 2026. urteetan. Diruz lagundutako gastuak **udal organo eskudunek** hitzarmen hau onartzeko erabakia hartzen duten unetik sortutakoak hartuko dira kontuan. Konkretuki, behean jasotzen den taularen arabera burutuko dira dirulaguntzak, dagokion kopuru eta epeetan:

HERRIAK	KOPURUA	2024	2026
ARRASATE	69.122,52 €	41.473,512 €	27.649,00 €
BERGARA	42.107,80 €	25.264,68 €	16.843,12 €
OÑATI	35.038,86 €	21.023,31 €	14.015,54 €
ARETXABAleta	22.740,05 €	13.644,03 €	9.096,02 €
ESKRIATZA	9.410,51 €	5.646,30 €	3.764,20 €
ANTZUOLA	5.628,41 €	3.377,04 €	2.251,36 €
ARAMAIO	3.643,66 €	2.186,19 €	1.457,46 €
ELGETA	3.232,43 €	1.939,45 €	1.292,97 €
LEITZ-GATZAGA	1.075,76 €	6.45,45 €	430,30 €
GUZTIRA	192.000,00 €	115.200,00 €	76.800,00 €

Hamahirugarrena.- Udalen dirulaguntzen ordainketa

Aurreko klausulan aipatu den bezala, dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira, dirulaguntza horien zenbatekoa banatzen den urterokoekin bat etorriz:

Lehenengoa, zehaztutako kopuruaren %60, ordainduko da hitzarmena sinatzean; baldin eta aurkezten badira ondoko dokumentuak, **udal zerbitzuek egiazta ditzaten**:

- a. Zerga obligazioen eta Gizarte Segurantzako ordainketetan egunean egotearen ziurtagiri eguneratua.
- b. Zinpeko aitorpena, beste erakunde edo organismo batzuei egindako dirulaguntza eskaerak edo dagoeneko eman zaizkion dirulaguntzak jasotzen dituena.
- c. Ordainketa egingo den kontuaren titulartasun agiria.

Bigarrena berriz, %40, hitzarmenaren indarraldia bukatuta **udal zerbitzuek egiazta ditzaten**. Horretarako, gehienez ere hitzarmenaren indarraldia bukatu baina 2 hilabete lehenago aurkeztu beharko da, alegia, 2026. urteko apirilaren 30erako, dirulaguntzaren justifikazioa.

Hamalaugarrena.- Udalen dirulaguntzen justifikazioa

1. Diruz lagundi ahalko diren gastuak honakoak izango dira:

- Langileen kostuak: **Gizabidea Fundazioko langileek proiektu honetarako eskainitako orduak.**

2024/11/28
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria



- *Kanpo-kontratazioak: Gizabidea Fundazioak, ezagutza berezitua behar duten lanak burutu ahal izateko kontrataturako aholkularitza enpresen gastuak.*
 - *Gastu orokorrak: Proiektuari atxikitzen zaizkion gastu zuzenak.*
 - *Zeharkako gastuak: Gizabidea Fundazioaren zeharkako gastuak, beti ere diruz lagundutako jarduera gainerako jarduerekiko duen proportzioaren arabera.*
 - *Ustiapen gastu osagarriak: Material, hornikuntza, edo proiektutik zuzenean eratorritako produktu berdintsuen kostuak.*
2. *Dirulaguntza zuritzeko kontu zurigarria aurkeztuko da. Kontu zurigarriak honako hauek bilduko ditu:*
- a. *Jardueraren memoria: Jarduera burutu dela ziurtatzen duen dokumentua izango da, burutu den jarduera eta emaitza adieraziko dituena.*
 - b. *Memoria ekonomikoa: Jardueraren kostua jasotzen duen memoria izango da. Bertan, jardueraren sarrera eta gastuak jaso beharko dira, eta dagozkion justifikazio dokumentuak aurkezu, hala nola, fakturak, langileen soldatuk ziurtatzen dituzten dokumentuak, edo bestelako frogak agiriak, gastuen kontzeptuen baitakoak. Ez dira onartuko fakturak edo egiaztagiriak bezala onartuak izateko legezko baldintzak betetzen ez dituzten gastu-ohar edo bestelako dokumentuak.*
 - c. *Zerga betebeharretan eta Gizarte segurantzakoetan egunean daudela egiaztatzen duen eguneratutako dokumentazioa.*
 - d. *Zinpeko aitorpena, beste erakunde edo organismo batzuei egindako dirulaguntza eskaerak edo dagoeneko eman zaizkion dirulaguntzak jasotzen dituena.*
 - e. *Dokumentazio grafikoa: Diruz lagundi den jardueraren argazki edo bideoak.*
3. *Gizabidea Fundazioak ez baditu hitzarmen honetan edo legedian ezarritako baldintzak betetzen, dirulaguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galduzat joko zaio, eta dirulaguntza edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak ordaindu beharko ditu.*

Hamabosgarrena.- Bestelako erakundeen ekarpenen epeak

Udalak ez diren bestelako erakundeek beren ekarpenak ere bi epetan egingo dituzte: lehenengo ekarpena % 60koa izango da, eta hitzarmen hau sinatzen unean burutuko da; bigarrena berriz, %40koa izango da eta hitzarmen honen indarraldia amaitu baina 2 hilabete lehenago burutuko da, alegia, 2026. urteko apirilaren 30erako.

Hamaseigarrena.- Ausazko zozketarako udalen ardura

Udalek, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 75. artikuluan oinarrituta, herritarren batzarrak eratzeko beharrezkoak diren zozketak burutzeko ardura hartzen dute. Zozketa horietatik ondorioztatutako herritarren zerrendak Gizabidea Fundazioari igorriko dizkio udal bakoitzak, beti ere datuen babeserako araudiak ezarritako mugen barruan. Datuen babesbermatzeko udalen eta Gizabidea Fundazioaren artean aldebiko hitzarmenak sinatuko dira, hitzarmen honi atxikitzen zaizkionak.



Hamazazigarrena.- Jasangarritasun ekonomiko eta finantzarioa. Aparteko ekarpenak.

Prozesu deliberatiboa ikuspuntu ekonomiko eta finantzariotik iraunkorra izan dadin, aldeek diru sarrerak eta finantziazioa eskuratzeko aurreikusitako bide eta baliabideak elkarrekin aztertuko dituzte. Aurrekontuan aldaketarik egiteko edo aparteko ekarpenik egiteko, hamaikagarren xedapenean aipatu diren eragile finantzario guztiak beren adostasuna azaldu beharko dute **aho batez**. Udal ordezkarien kasuan, adostasuna udal organo eskudunak eman beharko du, legez ezarritako prozedura eta mugen barruan.

Bestelako erakundeen kasuan, beren barne prozedura eta arauetara egongo dira lotuak.

Hemezortzigarrena.- Fede ona eta informatzeko betebeharra.

- 1.- Aldeek fede onez kolaboratzeko konpromisoa hartzen dute. Bereziki, jarrera irmoa hartzen dute Debagoienako trantsizio energetikoari dagokion prozesu deliberatiboa bultzatzeko eta sustatzeko.
- 2.- Modu berean, Aldeek Hitzarmen honetan eragina izan dezakeen edozein alderdiren inguruan elkarri informatzeko konpromisoa hartzen dute, eta bereziki zereginak modu egokian betetzean eragina izan dezaketen horietan.

Hemeretzigarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den unetik 2026eko ekainaren 30era bitartean egongo da indarrean. Hitzarmena izenpetzen duten aldeek edozein unetan utzi dezakete bertan behera epe hori amaitu aurretik, mandatu organoak adostutako prozedurari jarraituz; kasu horretan, idatziz eta utzi nahi den data aurreko 2 hilabeteko aurreikuspenarekin egin beharko luke.

Aldeetako batek hitzarmena utziko balu, prozesu deliberatiboak uzte data aurretik konprometitutako gastuen erantzule ere izango da, beti ere dagokion parte eta proportzioan. Uzte dataren ondoren konprometitutako gastuei dagokionez, hitzarmena utzi duen aldea ez da erantzule izango. Gastu horiek definitu eta adosteko, Jarraipen Batzordearen eta hitzarmena uzten duen aldearen arteko batzorde mistoa eratuko da.

Aldeetako batek hitzarmena uztearen ondorioz aurrekontuetan sor daitezkeen doikuntza erabakiak mandatu organoak hartuko ditu, beti ere hamazazigarren klausulan jasotakoari jarraiki.

Aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste urte betez, edo hitzarmena amaitzea. **Hitzarmena urte betez luzatzea erabakiko balute, dirulaguntzen azken justifikazioa eta 2. ordainketa luzapena amaitu baino 2 hilabete lehenago burutu beharko litzateke.**

Hogeigarrena.- Hitzarmenaren jarraipen batzordea

Hitzarmen honetako 7.2 klausulari jarraiki, mandatu organoak aukeratutako jarraipen batzordea izango da hitzarmenaren jarraipena egingo duena. Kasu honetan, Gizarbidea Fundazioa, hitzarmen honen sinatzaile den neurrian, erabakietan parte hartuko luke, bai deliberazioan eta baita bozketan ere. Akordioak botoen gehiengoarekin hartuko dira, eta beti ere gutxienez sektore publiko, pribatu eta komunitarioko ordezkarien baten aldeko bota beharko dute. Jarraipen Batzorde honen akordioak aktan jasoko dira. Nolanahi ere, Jarraipen Batzordea, akordio honetan xedatutakoak ez ezik, Sektore



Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. Artikuluan eta hurrengoan aurreikusitako funtzionamendu arauak ere arautuko dute.

Hitzarmenaren jarraipen batzordeak, besteak beste, honako egiteko hauek izango ditu:

- Hitzarmenean erabakitakoaren kudeaketa, jarraipena, zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenetik eratorritako interpretazio eta betetze arazoak konpontzea
- Egokitzat jotzen dituen hobekuntzak eta aldaketak formalizatzea proposatzea.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzean, adostutako jarduerak eta justifikazio dokumentazioa egiazatzeko dagokion akta egitea.

Hogeita batgarrena.- Aldeek beren gain hartutako betebeharrok eta konpromisoak ez betetzetik eratorritako ondorioak.

1. Hitzarmenaren sinatzaile batek bere gain hartutako betebeharrok eta konpromisoak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera. Hitzarmena sinatu duten aldeetako edozeinek jarraipen batzordeari jakinarazi ahal izango dio egoera. Jarraipen batzordeak, hala ikusiz gero, errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, epe jakin batean bete ez direla uste diren betebeharrok edo konpromisoak bete ditzan.
Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren, salatu den ez-betetzeak jarraitzen badu, hura abiarazi zuen aldeak suntsiarazteko arrazoia dagoela jakinarazi beharko du, eta, horren ondoren, hitzarmena suntsitutzat joko da.
Hitzarmena ez betetzeagatik suntsiarazteak egiaztatuta geratzen diren kalteen kalte ordaina ekarri ahal izango du.
2. Betebeharrok eta konpromisoak ez betetzea ekimen honen sinatzaileren bat banantzearen ondorioz gertatzen bada, hark dagokion kalte ordaina hartu beharko du bere gain, betetzen ari den aldeari eta bertan jarraitzen duten hitzarmenaren gainerako sinatzaileei kaltegabetasuna bermatzeko.
Betebeharrok ez betetzearen ondorioz bete ez duen alde sinatzailea hitzarmenetik kanporatzeko arrazoia badago, hala erabaki ahal izango du mandatu organoak gainontzeko kideen aho bateko erabakiz.

Hogeita bigarrena.- Hitzarmena azkentzeo eta suntsiarazteko arrazoia.

1. Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xedeko jarduerak betetzen direlako edo suntsiarazteko arrazoia dagoelako.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoia:

- a) Hitzarmenaren indarraldia igarotzea, luzatzea erabaki gabe.
- b) Sinatzaile guztien aho bateko akordioa.
- c) Hitzarmena nulua dela deklaratzen duen erabaki judzialagatik.
- d) Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita dagoen beste edozein arrazoirengatik.

2024/11/28
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria



2. Hitzarmena bete eta/edo suntsiarazi ondoren, likidazioa egingo da, alde bakoitzaren betebeharrok eta konpromisoak bete diren zehazteko.
 - a. Likidaziotik ondorioztatzen bada alderen batek gauzatutako jardueren zenbatekoa txikiagoa dela alde horrek hitzarmenaren gainerako aldeengandik exekuzioa finantzatzeko jaso zituen funtsak baino, alde hark beste aldeetako bakoitzari dagokion soberakina itzuli beharko die, likidazioa onartzen denetik gehienez hilabeteko epean. Aurreko paragrafoan aipatutako gehieneko hilabeteko epea igaro eta itzulketarik egin ez bada, itzulketa horri aplika dakioken berandutze interesa ordaindu beharko zaie beste aldeei, hori ere hilabeteko epean, une horretatik zenbatzen hasita. Interes hori, nolanahi ere, gastu publikoa eta sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen dituzten xedapen orokorren ondoriozkoa izango da.
 - b. Handiagoa bada, hitzarmenaren gainerako aldeek, likidazioa onartzen denetik hilabeteko epean, dagokion aldeari ordaindu beharko diote bakoitzari dagokion zatia, alde bakoitzak hitzarmenaren arabera emango zituela hitz emandako zenbatekoen gehieneko mugarekin. Diferentzia auditoria txostenetik abiatuta kalkulatuko da, suntsiarazpenaren egunera arte garatutako jarduerak kontuan hartuta. Hitzarmeneko aldeek ez dute inolako eskubiderik izango gainerakoei gehieneko muga horiek gainditzen dituen zenbatekorik eskatzeko.

Hogeita hirugarrena.- Jabego intelektuala

Aldeek sortuko duten ezagutzak jabego partekatua izango du, eta lankidetzak dirauen bitartean garatutako ezagutza kide guztiena izango da. Aldeek ezagutza hori erabiltzen dutenean, partekatzen dutenean edo modu ezberdinan hedatzen dutenean, Debagoinako energia trantsizioaren deliberazio prozesuari erreferentzia egin beharko diote (Creative Commons lizentziak ezartzen dituen irizpideen arabera - Attribution 4.0 International (CC BY 4.0)).

Hogeita laugarrena.- Konfidentzialtasuna.

Aldeen partetik, beharrezko neurriak hartuko dira informazio instituzionalaren konfidentzialtasuna babesteko, pertsona fisikoaren babesari buruzko araudia, datu personalen tratamendua eta datuon zirkulazio librea arautzen dituen Europako Parlamentuaren (EB) 2016/679 Araudiak eta 2016ko apirileko 27ko Europako Kontseiluaren Araudiak eta Datu Personalak eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak agintzen duenaren arabera.

Bestalde,

- 1.- Aldeek tratamendu konfidentziala emango diote Debagoinako trantsizio energetikoari buruzko deliberazio prozesuan parte hartzearen ondorioz eskuratzen duten informazio, dokumentazio edo ezagutzari, betiere, helarazi edo erabilgarri ipini duen kideak hala kalifikatu baldin badu.
- 2.- Konfidentzial modura kalifikatutako informazio, dokumentazio edo ezagutza hori ez da erabiliko Hitzarmen honen xedea erdiesteko beharrezkoa denetik harago.
- 3.- Aldeek eskuratu ahal duten informazio oro beharrezkoa den arduraz gorde beharko da. Aldeek helarazitako informazioa eskuratzea baimenduko zaie soilik hura erabiltzearen ondoriozko xedea



Iortzeko haren berri izatea behar duten langileei, informazio hori eskuratu duenari Hitzarmen honen arabera konfidentzialtasunari dagokionez baitaratutako konpromisoak jakinaraziz.

4.- Hitzarmen honen arabera Aldeek informazioa komunikatzeak ez du inolako eskubiderik sortuko informazioaren hartzaileari jabetza industrial, intelektual edo know-how erako eskubide babestuen inguruan.

5.- Klausula honetan ezartzen den konfidentzialtasunezko konpromisoa hitzarmen honen indarraldirako eta ondorenerako ere izango da. Soilik, informazioaren titularrak egin ahal izango du publiko hala erabakiz gero, eta legezkoa balitz.

Hogeita bosgarrena.- Atxikipenak.

1. Hitzarmen honetara atxiki ahalko dira sektore publikoko, pribatuko edo komunitarioko bestelako eragile batzuk, beti ere mandatu organoak hala erabakitzenten duenean aho batez.
2. Ildo berean, hitzarmen honen sinatzaileak hitzarmen honetatik bereizi ahal izango dira, eta horretarako prozedura definitu eta adostu beharko da.

Adostasun froga modura, aldeek hitzarmen hau sinatu dute (aldeko bana) eta ondorio bakarrarekin, goiburuau adierazitako tokian eta datan.



1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de las sesiones celebradas en fecha 24/10/2024 y 31/10/2024..

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 18 de noviembre de 2024.

3º.- CONCESIÓN DE SUBVENCION Y FORMALIZACION DE CONVENIO CON FUNDACION GIZABIDEA PARA LLEVAR A CABO UN PROCESO DE DELIBERACIÓN SOBRE LA TRANSICIÓN ENERGÉTICA EN EL ALTO DEBA. DESIGNACION DE REPRESENTANTES MUNICIPALES EN EL ÓRGANO DE MANDATO

Vista la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico y considerando que:

- La Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, en su art. 25 señala que el municipio para la gestión de sus intereses y en el ámbito de sus competencias, puede promover toda clase de actividades y prestar cuantos servicios públicos contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal. Uno de los modos de llevar a cabo dicho mandato legal es el apoyo a entidades en la realización de actividades que supongan una beneficio social.
- El art. 22.2 a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos de las entidades locales en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones.
- En este sentido, el presupuesto municipal para el presente ejercicio prevé una subvención individualizada a favor de la entidad FUNDACION GIZABIDEA por importe de 5.646,30 euros para la ejecución de un proceso de deliberación sobre la transición energética en Debagoiena.

Vistas las cláusulas del convenio regulador de la subvención a conceder y de conformidad con la propuesta elevada, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO: Aprobar el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Eskoriatza y la entidad FUNDACION GIZABIDEA para la ejecución del proceso de deliberación sobre la transición energética en Debagoiena. El clausulado de dicho convenio se une a la presente como ANEXO.

